

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana. Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

ARROTZ...

NOIZ? Zergatik?



Abdelhamid Beyuki Río Martil Tetuanen jaio zen (Maroko), baina 1984az geroztik Espainian bizi da.

Zer ikusten eta zer sentitzen du etorkin batek Europa zapaltzen duen unean?

Segun nora datorren. Saharatik beherako herrialdeetako norbait Marokora iristen denean, agian marokoar batek Espainiara iristean sentitzen duen gauza bera sentituko du, eta Espainiara iristean Estatu Batuetara iristean sumatzen dena sumatuko du. Segurtasunik eza sentitzen da, ikaragarria, sekulako babes falta. Lehen egunetan gauza gehienak ez dira ulertzen, ez kultu-

raren klabeak, ezta begiradak ere; izan ere, zenbait kulturak oso garaturik dugu begiratzeko modua, eta Mendebaldean interpretazio okerrak eragin ditzake horrek. Sexu erasotzailatzat ere sala zaitzakete. Nire herrialdean gauza zoragarria da begirada, oso polita. Azken batean, gauza askore-kin egiten da txoke, eta hasieran etorkinaren bizitza estropezuz beteriko bidea izaten da, egokitzen den arte.

Desberdintasun handia antzematen duzu kultura, ekonomia eta gizarte aldetik?

Bai, banketxeekin ditugun eguneroko harreman ekonomikotan, edo azokan, desberdintasunak nabaritzen dira. Gure herrian, *zoco* edo azokan erosketak egiteaz gain, gizarte harremanak izaten ditugu; goizeroko elkarriketa izaten da. Espainian desberdinak dira harreman horiek, eta hasiera-hasieratik antzematen da hori. Horrek ez du esan nahi etorkina bizimodu honetara egokitzen ez denik; egokitzen da. Hizkuntza ikasi aurretik barneratzen dira eguneroko harremanetako gauza horiek.

consumer.es, 41. zk. (zatia)



Beste itsasertzaren ifrentzua

Immigrazioaren hazkundera Europan. Egun 18,7 milioi immigrante bizi dira Europan, eta beste hiru milioi legez kanpo, hainbat iturriren arabera.

(...)

Gero eta gehiago dira immigranteak, eta horri aurre egiteko neurri zorrotzak ezartzen ari da Brusela.

Berria, 03-12-11

Jon Arretxe Ekialdera joan zen bidaiari, New Yorkeko Dorre Bikien atentatua gertatu eta gero. Bidaia hartan bitzakokak Ekialdeko mamuak liburuan jaso zituen. Jarraian biltzen den pasartean bidalaria Iranen dago, Maku hirian, Turkiako mugatik oso gertu.

Ez nekien zer pentsatu jatetxe erdi hutseko barraren albotik halako seriotasunaz begiratzen zidaten morroiei buruz. Afaldu berria nintzen eta, azken txokoko mahaitik, ez ohartuarena egin dut haien begirada nahasgarriari erantzunez. Zer ari ote ziren pentsatzen edo esaten nitaz?

Halako batean, taldeko gazteena nigana hurbildu eta alboan jesar-

tzeko baimena eskatu dit, halamoduzko ingelesa erabiliz. "Noski" esan diot irribarre eginez nire barruko ziurgabetasuna estaltzeko. Bere burua aurkeztu dit Mahdi unibertsitariak eta, egin diodan harrera ona ikusita, berehala elkartu zaizkigu Rahim negoziogizona, Nasser dendaria, Anoush farmazialaria eta Kamil tabernaria ere, azken biok euren laneko betebeharrak baztertuta aldi batez. Lotsa zen, eta ez beste ezer nigana hurbiltzea eragozten ziena, eta haien portaera "susmagariaren" azpian nirekin berba egiteko gogoia baino ez zen ezkututzen."

JON ARRETXE
Ekialdeko mamuak
Elkar



MATTIN

Moko eta Karmele pozez eta beldurrak, Irutxulo aldizkaria

GAIA/ASIGNATURA	EUSKARA
MAILA/CURSO	DBH3
IKASTETXEA/CENTRO	BERA
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	EUSKARA
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Axun Almandoz, Gorka Mercero, Enkarni Peña
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Inprimatutako testua
FORMATOA/FORMATO	jarraia
MOTA/TIPO	Elkarrizketa, narrazioa, azalpena
ERABILERA/USO	hezuntza

JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	1. "consumer.es, 41. zk."tik hartutakoa, 2. Berria, 03-12-11 ekotik hartutako albiste laburra 3. Jon Arretxerena "Ekialdeko mamuak"(Elkar) 4. Mattin irudigilearen "Moko eta Karmele pozez eta beldurak", Irutxulo aldizkaria.
IZENBURUA/TÍTULO	"Arrotz...noiz?zergatik?"
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Euskara eta Literatura DBH 3. maila, Ibazabal proiektua
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	62. eta 63.
ISBN	978-84-8394-034-1
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<p>1- Irakurketa helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Idatziko komunikabideetako testu eredu ezberdinetarako hurbilketa: hauen azaleko irakurketa nola burutzen den gogoratu, testu eredu ezberdinen formako ezaugarriak, eduki arloko ezaugarriak, eredu ezberdinak zertarako hautatzen diren...e.a. ○ Etorkinekiko sentsibilazioa garatu, kultura ezberdinekiko jarrera ulerkorragoa garatu eta beraiekiko enpatia sortu, beren egoera eta ikuspuntua ezagututa. <p>2. Irakurketan murgildu baino lehen, testuaren kanpoko egitura zein den begiratzeko erranen diegu, eta berezitasunak aipatzeko. Adibidez, izenburua, zutabeak, galde-erantzunak, koloreak, argazkiak, testu-kopurua, testu-motak, testuen jatorria, egileak...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuetan azaltzen den gaia antzemateko testuen sarrerak irakurtaraziko dizkiegu. eta gaiak proposatzeko erranen diegu.

	<p>3.1 Pausu hau emateko, lehenik komeni da egunkarietako testuetako azaleko informazioa ezagutzeko zein bide dugun ezagutzen ote duten ikertzea: egunkarietako atalak, albisteen lead-ak edo sarreren funtzioa, ezaugarri tipografikoen garrantzia,...e.a. zer dakiten jakin dezakegu honelako galderak formulatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Egunkari batean zein gai jorratzen dira? Inon adierazten al da hori? • Egunkari bat irakurtzen ari garela, nola jakin dezakegu modu azkarrean testu baten informazioa zein den? Nola jakiten al dugu hori? • Zer motatako irakurketak egiten ahal dira? Nondik nora hasi irakurtzen? Interesen arabera aukeratzen ahal da zer irakurri eta noiz irakurri? <p>3.2 Gai honi buruz dituzten aurreko ezagutzak urriak direla uste badugu, irakurketa gogoia pizteko, ikasleak taldeka jarrita eztabaida sortzeko beste galdera hauetatik abiatzen ahal gara:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Gure hurbileko nahiz munduko gertaerak ezagutzeko zein bide ditugu? b) Gaur egun ditugun bideak eta orain ehun urte zituztenak berberak al dira? Gaur egungoak lehengoak baino gehiago al dira? Zein dira berrienak? c) Nork hautatuko du bide bat edo beste informazioa jasotzeko? d) Informazio sakona edo azalekoa nahi badugu, bide bat edo beste aukeratzen eragingo al digu? <ul style="list-style-type: none"> • Zenbait kontzeptu argituko ditugu. Adibidez, “inmigrazioaren hazkundea”, “legez kanpo bizitzea”... Mapan Bruselas, Iran, Turkia eta Maroko kokatzeko erranen diegu.
<p>IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA</p>	<p>Irakurketa isila planteatuko diegu; batez ere, gaia zein den konfirmatzeko, planteatuko ditugun galderak erantzuteko eta berezitasunen zergatia</p>

		adierazteko. Halaber, bakoitzak azpimarratuko ditu gaiarekin erlazionatu dituen hitz klabeak.
IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA		Lehen irakurketa sakona egin ondoren, lauko taldetan biltzeko erranen genieke, elkarrekin testua komentatzeko eta ondorioak ateratzeko. Adibidez, testuen arteko erlazioa, antzekotasunak eta ezberdintasunak, igorleen helburua eta bakoitzaren mezua. Horrezaz gain, eztabaidatzeko ea egoera horiek zerikusia duten egunero gure kaleetan aurkitzen ditugun egoerekin, eta bakoitzaren jarrera etorkinekiko zein den azaltzeko, erantzunak arrazoituz.
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Ohitura ezberdinak hizpide hartuta, Abdelhanmid Beyukik bi adibide ematen ditu. Zein?
	Erantzuna Respuesta	<i>Begiradak eta erosketak.</i>
	2.	Nongoak dira lehenengo testuan elkarrizketatzen dena eta Arretxeren testuaren narratzailea?
	Erantzuna Respuesta	<i>Marokokoa eta Euskal Herrikoa</i>
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Azal ezazu testu bakoitzaren asmoa zein den: 1. testua: 2. testua: 3. testua: 4. testua:
	Erantzuna Respuesta	<i>1. Etorkin baten egoera, pentsamenduak eta sentimenduak ezagutaraztea eta bere egoera hobeto ulertzea. 2. Informatzea. 3. Gertaturiko pasadizoak kontatzea. Arrotzaren sentimenduak ulertzea. Ongi pasaraztea eta entretenitzea. 4. Irrifarra eragitea edo etorkin batzuek bere herritik alde egiten dutenean hartzen duten arriskuez ohartzea.</i>

	2.	Lau testu-zatiek immigrazioa al dute gai nagusi? Zeinek ez? Zein da horren gai nagusia?
	Erantzuna Respuesta	<i>Arretxerenak ez du immigrazioa jorratzen, gaizki-ulertu kulturalak baizik.</i>
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	Lehenengo testuan etorkin batek Europara iristeko unean sentitzen duena adierazteko hitz hauek erabiltzen ditu: “ (...) segurtasunik eza sentitzen da, ikaragarria, sekulako babes falta”. Erran testua ilustratzeko erabilitako irudiak sentimendu bera islatzen duen. Arrazoiak eman.
	Erantzuna Respuesta	<i>-Bai, etorkinak Europara iristen direnenean, gehienetan, beldurgarria den bidaiari ekin behar izaten diotelako, eta ez dute inolako babesik sentitzen, bakarrik daudelako; zenbait kasutan Gurutze Gorriko langileen laguntza jasotzen dute, eta une hori irudiak jasotzen du, manta batez inguratzen baitute beraien gorputza, eta manta hauek gehienetan Gurutze Gorrikoek ematen diete.</i>
	2.	Abdelhamid etorkina da eta Jon Arretxe bidaiaria. Halere, beren testuek lotura argia dute. Zein?
	Erantzuna Respuesta	<i>-Biek ere kultura ezberdinen araberrako begiratzeko modu ezberdinek sor ditzaketen gaizki-ulertuak dituztela mintzagai.</i>

Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Lehenengo testuan gizarte harreman ezberdinak direla dio elkarrizketatutako etorkinak. “Hizkuntza ikasi aurretik barneratzen dira eguneroko harremanetako gauza horiek” dio. Aurreko galderaren erantzunean ere hau dio: “(..) sexu erasotzailatzat ere sala zaitzakete”. Zuk uste duzu ezberdintasun kulturalak soilik gainditu behar dituzten oztopoak direla? Zer dela-eta, ez ditugu etorkinak besoak zabaldua jasotzen?
	Erantzuna Respuesta	<i>Ezberdintasun kulturalak gainditu behar dira, eta horretarako baliabideak jarri behar dira hizkuntzak ikasteko, ohiturak ezagutzeko eta abar. Baina hori ez da nahikoa ezberdintasun ekonomikoak eta sozialak baitira egoera tamalgarriak sortzen dituztenak eta horiek gainditzeko Gobernuak neurriak hartu beharko lituzkete eta guk ikasi beharko genuke behar duenari laguntza ematen.</i>
	2.	Berak dioenaren arabera, etorkin batek antzeko sentimenduak eta sentsazioak bizi izaten ditu lehen aldiz beste herrialde batera joandakoan. Azaldu zure hitzekin horren zergatia.
	Erantzuna Respuesta	<i>Segurtasunik ez, babes falta, beldurra... Gauza eta ohitura berri asko dago zuretik oso ezberdinak direnak. Hasieran etorkizunaren bizitza zaila da, arazo handikoa....e.a.</i>
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Bigarren testuko eta hirugarren testuko informazioari errepara iezaiozu. Objektiboa ala subjektiboa al da? Nola antzeman duzu hori?

	Erantzuna Respuesta	<i>Bigarren testuan egileak darabilen ikuspuntua objektiboa da, kazetariak hirugarren pertsona darabilelako, eta ez duelako iritzirik ematen. Hirugarrenean, berriz, subjektiboa darabil kontalariak. Lehenengo pertsona erabiltzen duelako, istorioan parte hartzen duelako eta iritzia ematen duelako.</i>
	2.	Lehenengo eta laugarren testuetan zer erregistro-mota nagusitzen den erran. Zukakoa ala hikakoa? Zergatik bata ala bertzea?
	Erantzuna Respuesta	<i>Lehenengoan zukako erregistroa erabili dute, baina komikian hikakoa. Erabilera hori lotutako dago testu-motarekin, testuaren asmo komunikatiboarekin eta bertan azaltzen diren pertsonaien arteko harremanarekin.</i>